


KULTUREA. Gerediagak, Euskaltzaindiak eta Durango, Otxandio eta Garaik goratuko ditue

Astarloa idazlea omendu guran

Felipe Arrese Beitia eta Valentin Maria Zubiaurre be ekarriko dabez gogora asteburuan



Gerediagak, Euskaltzaindiak eta Durangoko, Garaiko eta Otxandio Udalek gertau dabez ekitaldiak.

Aitziber Basauri

Pablo Pedro Astarloa idazle durangarra jaio zana 250 urte beteko dira, zapatuan; eta data hori probetxauta omenaldia eskainiko deusie Durangon, euskaltzale hari. Era berean, 1886ko Durangoko Euskal Jaietan Astarloaren omenez gertautako *Himno Kantata Astarloa* ardatz lez hartuta, Otxandiko Felipe Arrese Beitia olerkaria eta Garaiko Valentin Maria Zubiaurre musikaria be gogoratuko dabez.

Antoine D'Abadie bultzatutako Euskal Jaiak 1886an ospatu ebezan Durangon; eta orduan be, Pablo Pedro Astarloa, (Madrilen hil zan 1806an), goratzeko aprobetxau eben. Otailua jarri eben Ezkurdin —orain, Pi-

nondon dago—, eta kantata bat gertetea enkargau. Arrese Beitia eta Zubiaurrek hartu eben enkargua. Batak letrea eta besteak doinua, Astarloaren omenezko kantata gertau eben.

Gerediagak igaz berreskuratu eta argitaratu eban kantata; eta Jesus Egiguren autore durangarrak egokituta, Otxandion, Durangon eta Garain intrepreatuko dabez Duragaldeko hainbat abesbatzek, Bartolome Ertzilla Musika Eskolako musikariak lagun dabezala. Guztira 200 bat musikari eta kantari batuko dira. Zubiaurretarren gorpuak be ekarriko dabez Garaia; gaur egun, Madrilgo San Justo hilerrian hobiratuak.

Gerediagak, Euskaltzaindiak, eta Durango, Garai eta Otxan-

dioko Udalek alkarlanean eratu dabez, barikutik domekara iraungo daben ekitaldiak. Astarloa, Arrese Beitia eta Zubiaurre, ekarriko dabez gogora batkotxaren jaioterrian.

Gerediagako lehendakari Anton Mari Aldekoa-Otalorak Astarloaren bizitzea ekarri eban gogora. R.M^a de Azkue buru zala, eta Durangon 1921an, *Amigos de Astarloa* alkarlea eratu zala be bai. Otxandio, Garai eta Durangoko alkateek, barriz, ekintzetan parte hartzera deitu dabe. «Askorendako kale baten edo eraikin izena baino ez da Astarloa; baina, hainbat gairen bultzatzaile izan zan, eta egoki jo dogu 250. urterrena da honetan bera omentzea», esan dau Durangoko alkateak.

EGITARAUA

BAGILAK 28, BARIKUA

10:00: Euskaltzaindiak hileroko batzarra egingo dau Durangoko udaletxean.

20:00: Valentin M^a Zubiaurren *Himno Kantata Astarloa* Otxandio Santa Marina eleizan, Felipe Arrese Beitia omenez.

BAGILAK 29, ZAPATUA

10:00: Udaletxetik Tabirara ibilbidea Duragaldeko txistulariek alaituta.

10:20: Pablo Pedro Astarloaren omenezko ekitaldia haren otailuaren aurrean. Kriskitinen saioaren ostean lore eskanitzea egingo dabe.

11:00: Meza kontzelebretua Tabirako eleizan Karmelo Etxenagusia, Bilboko gotzain laguntzaile eta euskaltzain ohorezkoa buru.

12:00: Ekitaldia Astarloaren omenez, Tabirako Errosarioko kaperan. Agintarien ongi-etorri-agurrak, Itziar Lakaren *Astarloa eta hizkuntza* eta Ricardo Gomezaren *Astarloaren ekarpena euskal gramatikaren ikerketetan* kostenen aurkezpena; eta Kriskitinen saioa.

20:00: *Himno Kantata Astarloa* obrea, Durangoko Uribarriko Andra Mari basilikan.

BAGILAK 30, DOMEKEA

11:00: Elexabarri meza. *Doinuzahar* abesbatzak Valentin M^a Zubiaurren beharrak kantauko dauz.

12:00: Zubiaurren omenez ekitaldia Elexabarrin. Agintarien ongi-etorri-agurrak. Valentin M^a Zubiaurre berbaldia Patricia Sojoren eskutik; eta lurretako dantzariak *Linoren penak* eskainiko dabe, 1886ko Durangoko Euskal Jaiaterako Zubiaurrek gertautakoa. Leopoldo Gutierrez Zubiaurren agurra eta San Migelera kalejirea. Omenaldia eskainiko die Zubiaurretarren bertako dantzariak; eta Garaiko hilerrian Zubiaurre familiartekoen gorpuak hobiratu dabez

13:00: *Himno Kantata Astarloa* eskainiko dabe pelotalekuan.

ELORRIO

Ume errusiarrak ekarteko kanpaina abiatu dau Kainaberak aurton be

A. B.

Elorrioko Kainabera alkarleak abiatutako kanpaina dala eta, Errusiako 84 umek igaroko dabe, aurton, uda sasoia Euskal Herrian. Horreetatik gehienak Durangaldean. Oraingo honetan egondia hile bikoa izango da. Bagilaren 19an ailegau ziran umeak, eta irailaren 5era artean izango dira bertan. «Errusiako agintariekin negoziatu ostean, euren ia oporraldi osoa, gure artean igarotzea lortu dogu. Hile bi eta erdi egongo dira inguruko familien etxeetan», azaldu dabe Kainaberako kideek.

Umeon gabeziei aurre egitea da helburua

Ume errusiarrak kanpaina-agaz lortu gura dabena be azaldu dabe Kainabera alkarleko kideek. «Muturreko baldintza klimatikoetan eta ingurumena guztiz kutsatuta daukiela bizi dira; umezurtegi edo familioso pobreetan. Horrek hainbat gabezia sortuta. Horri aurre egiten laguntzea dogu helburua», di-noe. Era berean, Errusiara buelta egiterakoan, «negua hobeto igaroteko defentsaz, arrokekin, kuadernoekin, zapatekin... beteriko maleta eroango dabe. Material guzti horreekaz batera, familia baten berotasuna eta maitasuna».

Kainaberak abiatutako kanpaina aurrera egiteko laguntzea eskaini gura dabene badaukie horretarako aukera. Kainaberrak kontuetan sartu leteke dirua, «ume errusiarrrendako laguntzea dala zehaztuta», jakinarazo dabe Kainaberatik.

BERRIZ. Interneten nabigetan ikasteko aukerea emon gura dabe doako zerbitzu barriagaz

Jaurlaritzak bultzatutako KZGunea edegi barri dabe liburutegi zaharrean

A. B.

Internet ezagutu gura dauenak badauka horretarako aukera, liburutegi zaharrean. Izan be, edegi barri dabe KZGunea. Formakuntzarako 8 ordenagailu jarri ditue, eta nabigatzeko beste lau; eta doaneko zerbitzu hori astelehenetik barikura zabalduko dabe, 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara. «Preminen arabera moldatu leteke, baina, hori», dino Oihana Alberdik, tutoreetako batek.

Batez be, interneten nabigetan ikasteko aukerea emon gura dabe. «Zerbitzua 18 urtetik gorakoei dago zabalik. Baina, etxekoandregana, erretirauengana, 40 urtetik gorako lanbakoengana... heldu gura dogu. Horreek daukie-eta, igual, aukera gitxiago», dino Alberdik. Horrezaz ganera, Egilanden bidez, oinarritzko ikastaroak eta ordenagailuakaz ibiltzen badakienendako ikastaroak be eratuko dabez, datorren astetik aurrera. Seminarioak be



Liburutegi zaharrean egokitutako KZGunean 12 ordenagailu dagoz.

bai. Rosa Mari Ostogain alkateak azaldu dauenez, datorren urte amaierara arte izango dabe

zabalik. «Pauso handia emon da. Izan be, gero eta tresna garrantzitsuagoa da internet».

AGENDEA

DURANGO

Erakusketea: Oreretako Mikelazulo Alkarleak Senegalen landutako, RIIRU-XOL (bixotz taupadak) proiektuari buruzko argazkiak ikusi leteke, Barbaro tabernan. Hilaren 30era artean izango dabe edegita erakusketea.

Erakusketea: Raimundo Bikandi eskultore durangarraren beharrak ikusi leteke, Arte eta Historia Museon. Erakusketea datorren hilaren 30ean zarratuko dabe.